

Xedapen Orokorrak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

2221

118/2010 DEKRETUA, apirilaren 13koa; honen bidez aldatzen da Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko teknikariak enpresa eta lantokietan segurtasun- eta osasun-baldintzak konprobatzeko lanetarako gaitu eta antolatzeke baldintzak eta prozedura arautzen duen dekretua.

Abenduaren 12ko 251/2006 Dekretua indarrean sartu zenetik gaikuntzarako bi deialdi egin dira. Dekretu horrek arautzen ditu Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko teknikariak enpresetan eta lantokietan segurtasun- eta osasun-baldintzak egiaztatzeke lanak egiteko gaikuntza- eta antolaketa-baldintzak eta prozedura.

Esperientzia horien ondorioz, agerian geratu da zailtasunak daudela 251/2006 Dekretuko 4.d artikuluan ezarritako baldintza betetzeko. Izan ere, baldintza horren arabera bi urteko gutxieneko eskarmentua egiaztatu behar da Osalanen lan-arriskuen prebentzioaren arloko lan teknikoak garatzen, eta hori zaila gertatzen da sailen arteko mugikortasunagatik eta sortzen diren lanpostu berriak betetzeko beharragatik.

Teknikariak baldintza hori ez betetzea ez da eragozpena enpresa eta lantokietako segurtasun- eta osasun-baldintzak konprobatzeko, langile horiek eskarmentua baitute jada beste sail batzuetan eta sektore pribatuan.

Hori guztia dela-eta, komenigarria da gaikuntza lortzeko baldintza hori kentzea, nahiz eta gaikuntza-deialdietan meritu gisa baloratu ahal izango den.

Horren guztiaren ondorioz, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko apirilaren 13an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Dekretu honen xedea abenduaren 12ko 251/2006 Dekretuko 4. artikulua aldatzea da. Dekretu horrek arautzen ditu Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko teknikariak enpresetan eta lantokietan segurtasun-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

2221

DECRETO 118/2010, de 13 de abril, de modificación del Decreto por el que se regulan las condiciones y procedimiento de habilitación y organización para el ejercicio de la función de comprobación de las condiciones de seguridad y salud en las empresas y centros de trabajo por parte del personal técnico de Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

Desde la entrada en vigor del Decreto 251/2006, de 12 de diciembre, por el que se regulan las condiciones y procedimiento de habilitación y organización para el ejercicio de la función de comprobación de las condiciones de seguridad y salud en las empresas y centros de trabajo por parte del personal técnico de Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales se han realizado dos convocatorias de habilitación.

Como consecuencia de estas experiencias se ha puesto de manifiesto la existencia de dificultades en orden al cumplimiento del requisito establecido en el artículo 4.d) del Decreto 251/2006, consistente en acreditar una experiencia mínima de dos años en el desarrollo de funciones técnicas en materia de prevención de riesgos laborales en Osalan, motivadas por la movilidad interna e interdepartamental, así como por la necesidad de provisión de plazas de nueva creación.

La no acreditación de este requisito por parte del personal técnico no es óbice para el correcto desarrollo de la función de comprobación de las condiciones de seguridad y salud en las empresas y centros de trabajo por tratarse de personal con experiencia en otros Departamentos y en el sector privado.

Por todo ello resulta conveniente la eliminación de este requisito de acceso a la habilitación, que no obstante podrá ser valorado como merito en las convocatorias de habilitación.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 13 de abril de 2010,

DISPONGO:

Artículo único.– El objeto del presente Decreto es la modificación del artículo 4 del Decreto 251/2006, de 12 de diciembre, por el que se regulan las condiciones y procedimiento de habilitación y organización para el ejercicio de la función de comprobación de

eta osasun-baldintzak egiaztatzeko lanak egiteko gaikuntza- eta antolaketa-baldintzak eta prozedura.

Honakoa da 4. artikuluaen testu berria:

«4. artikulua.— Gaikuntza lortzeko baldintzak.

Enpresetan eta lantokietan dauden segurtasuneko eta osasuneko lan-baldintza materialak edo teknikoak egiaztatzeko lanak egiteko gaikuntza jaso ahal izateko, beharrezkoa da honako baldintzok betetzea:

a) Funtzionario publikoa izatea, A edo B taldeko kidegokoa izatea eta Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari atxikita egotea.

b) Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuei buruzko Erregelamenduari jarraituz, langileek onetsita dituzten eta erregelamenduan aipatzen diren prebentziozko espezialitateetan eta diziplinetan goi-mailako eginkizunak garatu ahal izateko, Erregelamenduaren 37. artikuluko 2. eta 3. paragrafoen arabera unibertsitateko titulazioa eta gutxieneko prestakuntza izatea, edo goi-mailako eginkizun horietarako baliozkotuta egotea, erregelamendu horretako bosgarren xedapen gehigarriarekin edo 1997ko ekainaren 27ko Aginduaren 12. artikuluekin bat etorrita (RCL 1997, 1714).

c) Arlo honetarako gaikuntza eskuratzeko berariaz ezarritako prestakuntza-ikastaro espezifiko gaingiduta izatea.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko apirilaren 13an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

las condiciones de seguridad y salud en las empresas y centros de trabajo por parte del personal técnico de Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

El artículo 4 queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 4.— Requisitos de acceso a la habilitación.

Para acceder a la habilitación que permite ejercer las funciones de comprobación de las condiciones de trabajo materiales o técnicas de seguridad y salud en las empresas y centros de trabajo es necesario:

a) Ser funcionario público o funcionaria pública, pertenecer a cuerpos de los grupos A o B y estar adscrito o adscrita a Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

b) Tener la titulación universitaria y la formación mínima que prevé el artículo 37.2 y 3 del Reglamento de los Servicios de Prevención, aprobado por el Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, para poder ejercer las funciones de nivel superior en las especialidades y disciplinas preventivas en que estén acreditados a que se refiere el mencionado Reglamento, o haber sido convalidados para el ejercicio de estas funciones de nivel superior, de acuerdo con la Disposición Adicional Quinta del mismo Reglamento o con el artículo 12 de la Orden de 27 de junio de 1997 (RCL 1997, 1714).

c) Haber superado el curso de formación específico establecido especialmente para la habilitación.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de abril de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.